

# Ze barri?

2000.ko  
URRIA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

43 zkia

*Urolatik Landetara*

---

Elkarrizketa:

Joxerra Agirreurreta

---

Eskoriatzarrok munduan:

Aitor Uribetxebarria Japonian

---

Herriko berriak:

Oluzurko eraberritze plana abian

---

**Gatzaren museoa  
martxan**





Musakola Auzoa, z/b 20500 ARRASATE  
Tfnoak: 943 79 18 80 / 943 79 21 25 / 943 79 24 11 Faxes: 943 79 21 25




**Udalaitz, S.L.**



Aluminios  
**KURTZEBARRI**  
Aluminioak

**ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGIAK**



Araba Ibilbidea, 17  
Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net



San Pedro 9, 1 behea  
20540 ESKORIATZA  
Tel. 943 71 54 34  
E-maila: axtroki@topagunea.com

### ARGITARATZAILEA:

AXTROKI  
Kultur Elkarte

### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar  
Andoni Bengoa  
Lorea Agiriano  
Iñigo Biain

### KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribetxeberria  
Aitor Urrutia  
Asier Errasti  
Juanma Pagalday  
Iñaki Agiriano  
J.J. Arrieta  
Jon Errasti  
Museo Eskola  
Lourdes Martinez  
Edurne Unzueta  
Iranzu Gabilondo

### INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

### TIRADA:

2.000 ale

### LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

### ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten  
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ESKORIATZA



## Etorkizunera itzuliz



**B**ihartik aurrera egitera nijoanak: Pisua galdu. Ordutegia antolatu. Haurrekin denbora gehiago pasa. Garagardorik edan ez, (ez, ez, eta, ez, horixe). Txekeo bat egin. Kolesterola jeitsi. Marca baino zerbait gehiago irakurri. Mitxelinak kendu. Hain ongi dagoen marketing bulegoko neska berriarekin gehiago ez ligatu. Berriro Frontoian palan jokatu. Lanera oinez joan. Astegunetan ere emaztea pozik izan, larunbaterorako utzi gabe. Gimnasia joan. Zazpiak baino lehenago iritsi, txikiteoa, poteoa edo dena delakoa utziz. Erretzeari utzi. Argaldu. Idazkariari begirada lizunik egin ez. Abdominalak egin. Hitz batean, aldatu.

Gizonak ispiluan behatu du bere burua, eta paeila eta suzedaneoen poderioz udan zehar hazirik aldaketa dramatikoak ikusten du. Orduan, bertan bere ohorea doakiolako, betetzeko prest dagoen tratu batera konprometitzen da, nahiz eta ispilu bestaldean ikusten den beste kontratatzailea ez dagoen oso ziur. Ekipai gehiegi utzi diote oporrek eta zaila egiten zaio egunerokotasunera ohitzea. Gutxi balitz, arazoak gorpil izena dauka eta logotipo eta guzti (mitxelin, alegia), beraz, hortik Gaseosa "Cruz del Gorbea" -gatik babestua egotera jauzi txiki bat besterik ez dago. Emakumeak ez duten luxua, haiena zelulitis eta kito deitzen bait da.

Gizonezkoak hondartzako jantziak hirikoengatik ordezkatzen ditu eta bulegorako bidea hurbileneko gimnasiaorantz desbideratzen du. "Bai, konpletoa". "Ehun mila dira". "Eta padelarekin?". "125.000, pista aparte". "Eta muskulazio gelarekin?". "Aizu, galderatxo bat baino ez, hau kentzeko- eta bere itsasaldeko

egonaldian hazi zaion flotadorea azaltzen da obszenoki- erregimena egin behar ote nuke, gainera.? Neskaren 50 kiloak eta amaierarik gabeko zangoak ageri dira sarrera atzean. "Begira, sabel hori ez duzu kenduko tratamendu intentsiboarekin ez bada. Beraz, abdominalak jo ta ke. Taloia edo Visaz ordainenezake eta ez zaitetz eguerdiz etorri beteta baitago."

Bere moralari eman dioten zartadaren ostean gizonak eta bere mitxelinek lanera oinez joateko erabakia hartzen dute. "Ibiltzea mantsagoa da baina baita eragingarriagoa ere.", pentsatzen du. Noski, 500 metro bete ondoren, gaur, bero egiten duenez, nikotina mono ikaragarriarekin dagoenez eta lehen egunean gehiegi egitea ere ez delako komeni, autobusa hartzen du. Bere mitxelinek errukia eskatu diote eta berak errukitsua izatea erabaki du. Ze erruki hobea norberena mitxelin eta gorputzetik hasten dena baino.

Bulegoan, sabeleko inflazioa bere lankideekin elkartzen da. Dirudienek, guztiak izan dute antzeko inflazio indizea, Gobernuak aurikuspen horietan agertzen ez dena, eta guztiak dute demaseko uda pasa izanaren itxura, eta ospatzeko nahia. "Zer...garagardotxo bat bai itzulera dela eta? Alfonsok ekarri ditik bere herriatik Burgoseko odolkitxo batzuk, txapela galtzeko modukoak. Eta Luismik Huelvako jabugotxoak. Lehen eguna arintzeko, gizona! Aizak, ha ze neska katxarroa sartu duan salmentako departamenduan. Inaziok bai jakin, hura beti izan duk argia. Ederra, hi. Ikusiko duk." Eta bere eskuekin Raquel Welchena izan daitekeen gorputza margotzen du airean.

Baina ez dago emazte bat bezalakorik gizonezko baten harrotasuna mozteko. "Maitea, ez duzu sinetsi ere egingo baina kilo bi galdu ditut te berdearen erregimenarekin, zu ze moduz, bihotza?-galdetzen dio puzka bizikeleta estatiko gainetik.-" "Ni leporaino jarri naiz, eta zer?." Nabaria da gaur ez zela egunik egokiena. Bihartik aurrera hasiko naiz.

Aitor Urrutia



## ERABERRITZE LANAK OLAZAR AUZOAN

Joan zen Urriaren 5ean Olazar auzorako eraberritze lanen proiektua aurkeztu zen Kultur etxean. Bertan izan ziren proiektuaren arduradun bezala Izaro Agirre eta Iñaki Laskurain, biak Injelan enpresako langileak. Eskoriatzako Udalaren izenean Edorta Zubizarreta alkatea izan zen.

Iñaki Laskurainek azaldu zuenez, Olazar auzoak nahiko egitura itxia eta estua dauka, alde batetik mendia baitago, eta bestetik erreka. Egoera honen aurrean ezin zen planteatu obra haundirik egiterik, esate baterako aparkalekuak egiteko. Ondorioz, lanen helburua Olazarri, nolabait esateko, aurpegia garbitzea izango litzateke, oinezkoentzako egokitzuz, direkzio bakarreko kale bezala behinbetiko jarritz, eta zerbitzu mailan

hainbat hobekuntza eginez. Honela, saneamendu sarea berriztuko da, ur zikinak eta euritik datozenak bananduz; gasaren banaketarako sareari ere dagozkion hobekuntzak egingo zaizkio; azkenik, argitze sistema hobetuko da, farolak jarritz. Trafikoarentzako ere egongo da aldaketarik, esan bezala, Olazar kalean goitik behera soilik joan ahalko baita, oinezkoen mesedetan.

Lanak Abendu aldera hasiko dira, eta beren iraupena ez omen da lau hilabetetik pasatuko.

Aipatu behar Olazar auzoko hainbat lagun joan zirela proiektuaren aurkezpen honetara, eta zuzenean azaldu zizkiotela Edortari aparkamentuen kontuan dituzten arazoak. Ez ote gara askotan gu geu arazo honen sortzaileak?

## HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK HITZARMENAK SINATU DITU ZENBAIT ERAKUNDEREKIN

Pasa den Urriaren 4ean Bergarako Udaltxean ospatutako sinadura ekitaldiaren ondoren, hiru izan dira ikasturte berri honen haseran Eskoriatzako **HUHEZI** fakultatearekin lankidetzak hitzarmenak sinatu dituzten erakundeak. Lehenago Ahizke-CIM Arrasateko Hizkuntza Akademiarekin eta Enpresa Munduan Euskeraren sustapena bultzatzea helburu duen erakundea izan ziren Fakultatearekin elkarlanerako konpromezua artu zutenak; hilaren 4ean Bergarako Udalak, Victoriano Gallastegi alkatearen sinadura ezarriz, bat egin zuen baita aurreko biekin. Hitzarmen

hauen helburuak, aipatutako erakundeek beraien zereginetan laguntzeko Fakultateko ikasleen prestakuntzaz baliatu, eta era berean ikasle hauei prestakuntza hori lanean aplikatu ahal izatea dira. Hori dela eta ikasturte honetik aurrera Mondragon unibertsitateko hiru ikasle talde aipatutako erakundeetan lenean arituko dira, egun erdiko lanorduz, eta dagokien dirulaguntza jasoaz. ikasleek egin beharreko lanak berriz, euskararen erabilpen neurketak egitea, eta alor ezberdinetara egokitutako hizkuntz planifikazioak zehaztea izango dira, besteak beste.

## “Elkartea eraikitzen” proiektua abian

Gure parrokia Ebanjelioaren zerbitzura dagoen eliza izatea, horixe da proiektu honen xede nagusia. Azken aldi honetan, lanean aritu dira herriko hainbat talde proiektu hau lantzeko ahaleginetan. Iragan astean egin zuten bileran aurkeztu zen proiektuaren emaitza. Bileran honetan, Parrokiako kontseilua, Bizian gora, Osasun Pastoral, Karitas, Liturgia, Katisima... eta beste elkarte batzuetako kideak bildu ziren. Bertan aurkeztu zuten “elkartea eraikitzen” proiektuaren liburuskak. Hauexek dira laburbilduz, landu nahi diren ardatz nagusiak:

- Ebanjelioaren sendotzea
- Senidetetasuna
- Izpiritualtasuna
- Konpromisoa

Liburuskak horretan sakontzen dira ardatz horiek lantzeko abiaburuak eta abiaburu horiek taldeetan azaldu eta landuko dituzte.

Gaiarekin zuzenean lotuta, Urriaren 7an Dorletara erromesaldia egin zen, *JESU KRISTOREKIN HOBETO!* lemapean. Jende dexente bertaratu bazen ere, aipagarria iruditu zitzaigun txirindularien eskasia, kontutan izanda Dorletako Ama txirindulari guztien ama dela, alde batetik, eta egin zuen eguraldi bikaina bestetik.

Gogoratu erromesaldi hau aurtengo Jubileo Urte honen barruan kokatzen dela, eta gainontzeko erromesaldietan egiten den bezalaxe, Dorletako honetan ere erromesen atetik sartu zela jende guztia, normalean itxita egoten den ate horretatik.

Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuen.**

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**OTZETA** jatetxea

Aranburuzabala kalean

ireki berria

Tfnoa.: 943 71 55 07



## Urriaren 8an omenaldi beroa jaso zuten Eskoriatzako nagusienek

Urriaren 8an, Igandea, Eskoriatzako nagusienek omenaldi beroa jaso zuten herriaren izenean. Izan ere, 65 urteko gorako guztiek eurentzako espreski prestatutako egun ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

Lehenik meza izan zen, eta gero bazkari ederra pilotalekuan. Eta bazkalondoan hasi zen benetako omenaldia. Lehenengo, emakume eta gizakume nagusienek eman zitzaizkien sari berezia. Aurtengoan Rosalia, 92 urterekin, baina idazten eta irakurtzen ikasten hasteko aina gogoz eta indarrez, eta Antonio, 91 urtekoa izan ziren.

Ondoren dantzaldia eta gainontzeko oparien banaketa. Guztira 80 inguru sari banatu ziren bazkarira bildutako artean, guztiaen artean azpimarratzekoak kuberterria eder bat, eta, batez ere, Benidormera bidaiak.



Mahaletan ez zen ia inor gehiago sartzen

## “EMAKUMEAK: IZANAK ETA IZATEAK” JARDUNALDIA AZAROAN HUHEZI FAKULTATEAN

Emakumeen izanei eta izateei buruz, sexologia eta feminismoa bezelako diziplina ekoizpenetatik pilotutako jakintzak, diskurtso ezberdinek eta bi diziplina hauen historiak garaturiko aportazioak hausnartu, aztertu eta elkartrukatzeko gune bat sortu asmoz, Azaroaren 4ean HUHEZI Fakultatean ospatuko den Jardunaldi bat antolatu du Arrasateko Udaleko Sexologia zerbitzuak. Egitarauaren barruan, hitzaldi-egutak, Simone de Beauvoir-en bizitza eta lana jasotzen dituen liburu baten aurkezpena, eta zenbait talderen komunikazioak izango dira besteak beste. Sexologia eta Feminismoa habiapuntuzat artuz

Emakumeari buruz arituko direnak berriz, alor ezberdinetan lanean diharduten adituak izango dira, Pilar Otaegi eta Merche Garcia sexologoak, Cristina Garaizabal psikologoa edo eta Uribarri Alberdi antropologoa, besteak beste. Egun osoan zehar luzatuko den jardunaldi honetan parte artu ahal izateko Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuan izena eman beharra dago, eta 1500pta ordaindu behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazue Arrasateko garibai etxean dagoen Sexologia Zerbitzura, edo deitu 943 79 80 10 edo 943 770065 telefonoetara.

## 2000.URTEKO MUNDUKO EMAKUME MARTXARI ATXEKIMENDUA EMAN ZION UDALAK

Eskoriatzako Udalak ospatutako azken Osoko Bilkuran, ordezkariak duten alderdi politikoen 2000. urteko Emakumeen Mundu Martxaren Aldeko Emakume Talde eta Erakunde Feministen Plataformak helarazitako agiriari atxekimendua eman zioten, martxa honek Euskadi zein Europako deitutako iharduera eta mobilizazioekin bat eginez. Era berean, emakumeek jasaten duten txirotasunaren eta bortizkeri sexistaren kontrako borrokan benetako neurriak hartzeko eta egindakoa ebaluatzeko konpromisua hartu zen, horretarako herriko emakumeak lehentasunezko

solaskideak izanik.

2000. urteko Mundu Martxa bost kontinenteetako emakume elkarte eta erakunde anitzek deitutako mobilizazio kanpaina bat da, aurtengo martxoaren 8an hasi eta Urriaren 17an Nueva Yorken mundu mailako kontzentrazio batekin amaituko dena; azken aste hauetan, Euskal Herrian ere hainbat ekintza burutu dira aldarrikapen honen inguruan. Martxa honek hiru ardatz nagusi bete nahi ditu beste askoren artean: Emakumearen pobrezia eta haien aurkako biolentzia sexista salatzea, eta emakumearen nazioarteko elkartasuna jorratzea.

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



**kutxa**

*gizarte-ekintza  
obra social*



## Pub ALDATZ

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun



# UDAZKEN KULTURALA...

**Aurtengo Urrian Udazken Kulturaleko ekintzak faltan nabari duenik baldin bada, lasai gelditu ahal izango du, Urrian egitaraua beste urte batzuetan baino murriztagoa izan bada ere, Azaroa ekintzaz lepo ginda etorriko bait da.**

Hala ere, ezin aipatu gabe utzi orain arte izan diren ekintzetako batzu, Urrian ibilaldi kulturalak, majia ikuskizunak, eta pasa den asteburuan bertan, kafe-antzerkia eta urteroko mendi bizikleta ibilaldia izan bait dira.

Azaroko egitarauak ere ekintza ugari ditu natura eta ingurugiroaren testuinguruan: perretxikuzaleek, adibidez, Azaroaren 10, 11 eta 12an izango dute beren afizioaz gozatzeko aukera, ostiralean Aranzadi kultur elkarteko zenbait kideren eskutik. Kultur Etxean izango den hitzaldian, Larunbatean egingo den ibilaldian, eta Igandean plazan jarriko den erakusketan, besteak beste. Hala ere, eta ibilaldiei kasu eginez gero, asteburu hontan bertan, Larunbatean Mendiolan haurrei zuzendutako

gogoratu behar. Txokolatada, diapositiba emanaldia eta ipuin kontaketak izango dira bertan, besteak beste.

Azaro hasieran beste hainbat kultur ekintza ere izango dira; hilaren 3an, adibidez, Marilu Unzurrunzaga pintorearen oleoak erakusgai jarriko dituen erakusketa estreinatuko da Kultur Etxean, hilaren 19a bitartean luzatuko dena; 14an haurrentzat zuzendutako beste ekintza bat egongo da, "Rosa, kontaidazu ipuin bat" txontxongilo emanaldia. Hurrengo egunak beste hitzaldi bat izango da Kultur Etxean Lucia

Ansoaga abokatu donostiarraren eskutik, gaia "Herentziak, testamentuak eta ondasun banantzeak" izango delarik. Ekintzeekin jarraituz, 18an Gasteizko izotz pista txangoa antolatu da. Horretarako izena eman beharra dago; beraz, pasa zaitezte Kultur Etxetik Azaroaren 16a baino lehen. Udazken Kulturalaren hasieran bezela, bukaeran ere kafe-antzerki saio bat izango da. Gasteizko "Detritus teatro" antzerki taldearen eskutik. Saioa, aurrekoan bezela, Alcazar tabernan izango da.

Musikak ere izango du bere lekua egitarau hontan: alde batetik Musika Eskolako Bandak eskeiniko duen kontzertuan, eta Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuan, bestetik. Bandak hilaren 25an parrokian eskeiniko du bere saioa, eta rock kontzertua pilotalekuan izango da. Klinik eskoriatzarrak, MPB eta Fliiter nafarrekin.

Bertsozaleek hilaren 25ean Toki Alai tabernan dute beren zita, Sebastian Lizaso, Igor Elortza eta Ion Maia izango ditugularik aurtan bisitari. Eta nola ez, aurtan ere Takolo, Pirritx eta Porrotxek beren bisita egingo diete eskoriatzar gazteenei. Abenduak 2an eskeiniko duten beren azkenengo estreinaldia Intxaurtxuetako polikiroldegian.



## ... eta III. HERRI OLINPIADAK

Iazko arrakastaren ondoren, EGASeko gazteak aurtan ere animatu dira, eta iazkoa gaintzeko asmoarekin ondoren ikusiko duzuen egitaraua prestatu dute "Sydney txiki utziko dugu" lemapean. Hori hala izateko giltza eskoriatzar guztien eskuetan dago. Animo!

**Urriak 28, Larunbata**

- 12, 30 eta n

**BIZIKLETA POTEOA** herriko kale eta tabernetan.

-14,30etan **BAZKARI HERRIKOIA** (Menua: entsalada, oilaskoa eta ijito-besoa).

-Bazkal ostean Olinpiadei hasiera emateko antortzarekin erreleboak herrian zehar eta bukaera plazan. Olinpiadako sua Tximasek piztuko du, EGASeko maskotak.

-Olinpiadetako jokauk:


1. Estropadak oholekin
2. Sartu txuloan
3. Mozkor jokua
4. Flan dastaketa
5. Sagar jokua
6. Karro lasterketa
7. Karretila

**Azaroak 4, Larunbata**

-15,00etan taldeak bilduko dira KAFE eta PASTAK jatera. Ondoren jokuen hasiera:

1. Marujitaren liftinga.
2. Aho-ahoa
3. Rabbit eating carrots
4. Txakur jokua
5. Sorpresa-sorpresa

-Ondoren **ALTXORRAREN BILA**, bizikletaz, parepentez, korrika, ...Onenak irabaz dezala!



**AZKOAGA ESTANKOA**

Zure Zerbitzura



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 71 51 20



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 943 715061





# JOXERRA AGIRREURRETA

Pasa den Otsailean kargu berria estreinatuta, lanez lepo eginda harrapatu dugu Joxerra Agirreurreta, Gatzagako alkate berria "ikasturte politiko" honen haseran. Hala ere, tartetxo bat egin du bere agendan "Ze barri?" ko galderei erantzuteko.

**Zer moduz joan zaizkizu alkatetzako lehenengo hilabeteak?**

Puufff!(Putz egiten du haseran) Zaila izan da hamahiru urtez alkate izan dugun bezelako fenomeno bati erreleboa artzea, baina ekipo ona biltzea lortu dugu udaletxean eta kostata bada ere borondate onez lan eginez, bagoaz aurrera.

**Ze balorazio egiten duzu pasa berri diren Andramaixei dagokionez?**

Bi balorazio ezberdin egin daitezke; gaueko festa giroari dagokionez nahiko exkaxa. Aurten jaiak antolatzen laguntzen jende gaztea ibili dela eta, gau bat rock taldeez eta bestea beste tankera bateko musikaz betetzea erabaki genuen. Jaiei dibertsidade pixka bat eman nahian, "Sonerros del Changüi" taldea ekarri genuen ostiralean, baina gauza ez zen guk nahi bezala irten, guk saltsa talde bat ekarri nahi genuen, jendea mugiaraziko zuen zerbait, eta larunbateko kontzertuek ere ez zuten jendea erakarri. Hala ere, Amabirjiña egunean eta eguneko giroan, oso ondo joan dira gauzak.

**Zeintzu dira zure ustez Gatzagak herri bezela dituen beharrik garrantzitsuenak?**

Beharrik premiazoena saneamendu alorrean dagoela uste dugu; oraingo saneamendu sarea oso zaharkitua dago eta 60 bat miloi


pezeta behar dira berau berriztu eta bide batez beste azpiegitura batzu, gasa edo fibra optikazko sarea zabaldu ahal izateko. Hortaz aparte, kanposantuak ere ikutu baten beharra badu...

**Eta etxebizitzari dagokionean?**

Gatzaga herri berezia da, ertaroko hiriska bat dela esan daiteke, eta guk ez dugu izaera horren gainetik pasa eta etxebizitzak edozein modutan egin nahi. Edonola ere, herriak badu bere hazkuntza naturalari erantzuteko beharra, eta hori ere gure betebeharra da.

**Zer kontu zenezake orain urte batzu martxan jarri eta itxuraz behintzat horren emaitza onak eman dituen Osoko Garapen Planari buruz?**

Plana oso zabala da, eta alor bakoitzak era ezberdin batean egin du aurrera, helburu bera izan arren, herrian aktibitate ekonomikoa zuzpertz, jendeari lana eskaini, eta berauek errentabilizatu eta konsolidatzea, ain zuzen. Dorletako Santutegia eta Erdi Aroko Hiriska berreskuratuta daude, Gatzaren Eko



Museoa eta Jakion errelitate bat dira, biek ere aurrera egin beharra duten proiektuak diren arren. Beste batzuk ez dira horren ondo joan, artisautza tailerrak adibidez; kasu hontan zorte txarra ere izan dugu, eta gauzek aurrera egiten zuten neurrian gurekin ibili diren artisauak "erre" egin dira, edo disgustuak eman dizkigute. Orain bultzatu nahi dugun beste bat Indiano Etxearen berreskurapena da. Haseran hotel bihurtu nahi zena, orain zerbitzu alorreko enpresen egoitza bihurtu nahi dugu, eta bagabiltz bertan kokatu nahiko lukeen zenbait etxerekin harremanak izaten. Izugarri ondo irten dena Gaztainuzketako Nekazal alojamentuena izan da, eta itxaropen handiak ditugu Gatzagako basoak berreskuratzeko planean, azken honek fruitu ematen denbora beharko duen arren.



# Gatzaren museoa, historia bizirik

Zergatik ote dago gatza Leintz Gatzagan? Horrenbesteko garrantzia eduki zuen gatzak historian zehar? Norentzat garrantzitsua? Norentzat botere handiagoa lortzeko lehengaia? Horrelako galderei erantzunez hasten da, besteak beste, Leintz Gatzagako Museoa bisita.



Nerea Zubiete eta "Pequeño" gatzaren iturburuan

Herri zahar horrek ez dio izanari uko egin nahi izan eta 1972tik jareginda gelditu ziren instalakuntzak eta herriari izena eman dion produkzioa berreskuratu nahi izan ditu. Izan ere Burni Arotik, gizakia nomada izatetik toki zehatz baten bizitzera pasatu zenean hasi zen gatza ustiatzen. 1000 urtetik gorako tradizioa, beraz, ezin zen hain errez galtzen utzi.

Leintz Gatzagari dirua eta ospea eman dio "urre zuria" moduan ezaguna izan den produktuak. Gatzelako erregeari ere bai, 1331an herriari "Hiri Gutuna" eman zionean, gatzaren produkzioaren jabe goa Gatzelako kororako eraman baitzuen.

Dena ez zen, ordea, hain polita izan. Hain gutuziatuak diren lehengaiak, boterea dela eta, alderdi iluna ere erakusten dute. Hiria sortu eta oso gutxira historiako garairik latzenetariko bat bizi izan zuen Leintz Gatzagak. Gebarako Jaunak, Oñatiko konteak prebenda bat lortu zuen Gatzelatik eta gatza ezezik herria eta bailara menderatu zuen 120 urtez.

Gaur egun, oso hurbil egon arren, urruti gelditzen zaigu produkzioaren historia hori. Gazteenak, batez ere, ez dira jabetzen gatzak orain dela oso urte gutxira arte izan duen garrantziaz

Museoko eraikuntzak ikusiaz joan ahala, garai ezberdinetan gatza nola egiten zen jakin daiteke. Oso laister, gainera, gatza bertan egingo da eta prozesu osoa ikusi ahal izango da.

Ur gaziko putzuaren inguruan zeuden 8 dorla edo gatza egiteko etxe txikitxoetan egon zen lana mendetan zehar, 1834ra arte. Uholde batzuk egitura horrekin amaitu eta aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. PRODUCTOS LENIZ enpresa sortu eta gaur egun museoko izarra den "putzupada gurpila" ezarri zuten, ura jaso ahal izateko. XX. mendea teknologia aurreratuagoaren mendea izan da eta Leintz Gatzagan ere isladatu egin zen hori.

Gaur egun, oso hurbil egon arren, urruti gelditzen zaigu produkzioaren historia hori. Gazteenak, batez ere, ez dira jabetzen gatzak orain dela oso urte gutxira arte izan duen garrantziaz. Horregatik aprobeitza daiteke aukera hau hain azkar dihoan gaurkotasuna apur baten alde batera uzteko eta ordu erdiz, modu atseginean, gure inguruko historian murgiltzeko.

Dagoeneko 600 baino gehiago izan dira tartetxo hori hartu dutenak, uztailaren 19an museoa publiko zabalera ireki zenetik. Gehienak euskaldunak izan dira, nahiz eta Kataluña, Madril, Kanariak edota atzeritik ere batzu batzuk etorri diren.

Neguko ordutegia honako hau da: asteburu eta jai egunetan lau bisita egongo dira: goizez, 11:30etan eta





12:30etan.

Arratsalde, 16:00etan eta 17:00etan.

Aste egunetan bisitatu nahi duten taldeek erreserba egin beharko dute ondorengo telefonoan: 943 71 47 92.

Sarrerak 300 pta balio du. Taldeak 20 lagun baino gehiagokoak badira, ordea, bakoitzak 250 pta ordaindu beharko du, anima zaitezte, ez zarete damutuko.

**Ezkerretara: Gatzura ateratzeko erabiltzen den errota kanpoaldetik**

## Nerea Zubiete: museoko arduraduna

**Gatzagako museoak jendeari ateak ireki dizkionetik, Nerea Zubiete eskoriatzarra da bertara hurbiltzen direnei harrera egiten diena. Berarekin batera oraindik hasi besterik egin ez, eta etorkizun zabala duen proiektu honen lehen emaitzei buruz solasean aritu gara.**

**Zer moduzko erantzuna jaso du museoaren irekierak lehen hilabete hauetan?**

Oso arrera ona izan duela uste dugu. Bi hilabete t'erdian seirehun pertsonatik gora pasa da museotik. Orain gainera, ikasturte hasierarekin batera, beste bost enkargu ere izan ditugu.

**Ze bixitari mota izan da etorri dena?**

Gehienbat arabar, gipuzkoar eta bizkaitarrak hurbildu dira, eta asko Donostia aldekoak. Eragin asko izan zuen hortan museoaren irekierak komunikabideetan izan zuen isladak; egunkari eta irratiez aparte ETBk ere erreportai bat eskaini zuen albistegi batean gaiari buruz, eta horrek interes kulturala azaltzen duen jende asko erakarri du hona. Batez ere familiak eta oporretan zeuden bikoteak hurbildu dira, adin media bat eginez gero, 28 urtetik gorakoak edo.

**Zer aurki genezake museo hontan?**

Gatzaren fabrikazioari buruzko azalpen bat baino gehiago eskaintzen da hemen; horren hurrin ez dagoen eta gatzak berebiziko garrantzia zuen historia bat ezagutzeko aukera eskaintzen du museoak, jende nagusiak askoz gertuago ikusten duen errealitate bat isladatzen du. Hau gainera hasi besterik ez da egin; hilabete pare batean ikusentzunezkoak eman ahal izateko gela bat prestatu nahi da, eta gatzaren elaborazioa hobeto ikusi ahal izateko hainbat elektragailu ezarri nahi ditugu. Hortaz aparte, orain ikusgai dauden gauzekin ere, etorri den jendea pozik eta interesa aseta joan dela esango nuke.

**Eta aurrerago begira, ze etorkizun ikusten diozue proiektuari?**

Oso baikorrak gara alde hortatik.

Lehen esandakoaz aparte, oraindik lanean dihardugu gatza ikuspegi gehiagotara zabaltzeko asmoz. Euskal Herriko Unibertsitatera jo dugu, Zientzia Fakultatera, eta baita zenbait historiagilerengana ere, eta interes handia erakutsi dute.





## Japon, beste mundu bat

Lan bidaiak eraman zuen Aitor Uribetxebarria eskoriatzarra ekialde urruneko paraje bitxi horretara. Lan kontuekin tartekatuta zuten, beraz, turismoa egiteko hemendik eraman zuen gogoia. Horrela, Japonian igaro zituen hamabost egunak nahikoa izan ziren, herrialde hura mendebaldeko beste edozein herrialderekin alderatuz, zeinen ezberdina den jabetzeko. Horietako bitxikeria batzuk ezagutarazi dizkigu ale honetan:

Aireportuetan, zoritxarrez, hainbestetan izaten den despiste horixe bera gertatu zitzaion Aitorri ere: "Tokioko aireportuan lur hartu genuen guk, baina, nire poltsak bidean galdu ziren" bidaiari modu original honetan hasi zuten. Munduko herrialderik aurreratuenetakoa izan arren, Japonian ere txakurrak ortozik, beraz.

### TEKNOLOGIA vs TRADIZIOA

Tokion zeukaten Aitor eta bere kideek kanpamendu basea. Hala ere, izan zuten aukera Japoniā hegoaldeko iparraldera zeharkatzeko. Horretarako, gehienetan, Shinkasenean mugitu ziren. Hots abiadura handiko trenetan. Ziztu bizian pasa arren, arretaz begiratzen treneko lehiatilatik. Gauza asko ikusi zituen Aitorrek horrela, baina, baita beste batzuk asti gehiagoz bisitatu ere.

Tokion, bertan, bereziki txunditu zuena, eski estazio artifiziale izan zen. Imajinatu ere ez zuten egiten halakoak munduan egongo zirenik, baina, Japonen bai. Japoniar hauek badirudi beti urrats bat aurretik doazela. "Estazio estali hori urte guztian egoten ei da zabalik. Guk uztailean jendez beteta aurkitu genuen eta hori Tokion sekulako beroa egiten zuela. Eguzkitan 40° izango ziren egunik gehientsuenetan. Hezetasuna ere ez zen makala,



Aitor eta bere lankide bat metro azkarraren zai

t%75ekoa bai behintza". Horrela, nolarmala japoniarrek alde guztietan aire girotua eduki behar izatea.

Teknologia eta tradizioaren arteko harreman estua aurkitu du Aitorrek nipontxoan lurraldean. Beste leku batzuetan ez bezala, munduko herrialde aurreratuenetakoa izan arren, Japonian ederki gorde eta zaindu dituzte aintzinako tradizioan, ohituretan, protokoloan... denean antzematen ei da.

Bisitatu dituen hirietan, bi mundu horien elkarbizitza nabarmena topatu du. Osaka hiria dugu horren adibide: "Osakan gasteleraz esaten den "desorden organizado" hori aurkitu genuen. Mota guztietako jendea oldea kaleetan, mila eratako eraikinak... baina, garbi ikusten zen

nahaste borrhaste horretan ere, hiriak funtzionatzen zuela".

Sinismenak oso errotuak dituzte Japonian. Horren adibide, Fuji mendira igotzeko Aitorrek ikusi zuen jende oldea: "Sinismen oso errotuak dituztenek diote, gutxienez bizitzan behin Fuji sumendira igo egin behar dela. Bi mila metro inguruko sumendia da Fuji, egun itzalia dagoena. Hara goranzko bideak, pertsonentzako autopista bat zirudien".

### AISIALDI GUTXI

Japoniarrek nekez usten dituzte lan kontuak alde batera. Urte osoan bost egun baino ez dituzte izaten oporretan. Astegun normal batean ere, lanetik kanpo lan kontuetaz



## ESKORIATZARROK MUNDUAN

aritzen dira luze eta zabal bai tabernetan, kalean....

Baina, aisialdian ikaragarri gustatzen zaien zerbait karaokea da. Aitor hiru alditan eraman zuten karaokera. Gainera, behin, karaokera joan eta zer jarriko eta, Espainiako imno nazionala entzun behar izan zuten. Gasteleraz eta ingelesez abesten zuten, nahiz eta japoniar gutxik hitzegin ingelesez: <<Beraientzat oso zaila da ingelesa edo mendebaldeko beste edozein hizkuntza ikastea. Sinbologia erabiltzen dute eta idazteko hiru era dituzte>> argitzen du Aitorrek.

Bestalde, patxinko zale amorratuak dira. Hemen joku saloiak dauden bezala, han horrelako patxinko saloiak daude. Orduak eta orduak ematen zituzten makina horietara bolatxoak botatzen. Gure bidailagunak ez zuten joku hau oso ondo ulertu, baina, Aitorru zigun japoniarrak itsututa daidela jolas xeble horrekin: "Ulertzeko zaila zen oku hau, baina, bukaeran bola gehien zituenak irabazten omen zuten". Batzuk kiloka bola izaten zituzten eta aho beteko irrifarrea, garaile atera ziren seinale.

### JAN, ETXEAN BEZALA INON EZ, BAINA...

Behin haraino joan eta Japoniako jatetxe tipikoak ere probatu behar. Hauetan, ez zegoen mahairik. Katami gainetan jaten ei da, ortozik eta makurtuta. Japoniarrek jateko orduan ere badituzte ohitura bitxiak: "Fideoak, nudoak, jateko nor gehiagoka aritzen dira, ea nork zarata gehien atera. Hau edukazio onekoa omen da".

Gastronomia ere, ezberdina dute oso. Hasteko, Japonian ia dena gordirik jaten dute: okela, arraina, mariskoa. Arroza



Japoniako gastronomiaz gozatzeko aukera izan du Aitorrek

mila erataria prestatzen dute eta, bai arraina eta baita mariskoa ere oso goxoak ei dira. Balaia jaki tipikoa ei, baina, Aitorrek ez zuen probatu nahi izán. Osterantzean, orohar gustatu zaio Japoniako gastronomia. Gainera, sukaldean aritzeko aukera ere izan zuen: Japoniar laguntzako sussia prestatu zuten behin. Osagaiak eta guzti esan zizkigun gure sukaldariak

(Arrosa, krema eta izokina) eta japoniarrek esan zitetenez, oso goxoa atera zitzairen. Baina guri inbidia eman bakarrik ez eh!

Hamabost egunetan ez du aukera larregirik izan hango kultura ezagutzeko. Hala ere, Aitorrek badu asmoa berriz bueltatzeko. Hori bai, oporretan edo.



Hamabost egunetan bilerak ere bat baino gehiagotan parte hartu behar izan du Aitorrek.




# Zertan igarri duzu gasolinaren igoera? Zer egin beharko litzateke arazoa konpontzeko?



**Delfin (taxista)**

- Poltsikoan. Taxiko tarifak duela lau urteko berak dira, gasolina, berriz, ikaragarri garestitu da.
- Jaurlaritzak diru laguntzak eskaini beharko litzuzke, guk ezin diogu eta egoera honi aurre egin. Horrela, ezin dugu lanik egin.




**Jose Miguel Perez (harakina)**

- Astean 4mila pezta bota tzen diot furgonetari. Lehen bi milan egiten nuen.
- Oso zaila dago. Errentak jeitsita ere, arabiarrek dute azken hitza, beraz, oso arazo larria dela uste dut.



**Mª Carmen del Rio (etxeko andrea).**

- Guztia garestitu da: gasolina, butanoa, janaria...
- Oso txarra. Errentak jeitsi beharko dira, bestela... Opor ostean golpe latza jaso dugu!




**Felipe Lopez (langilea)**

- Ba, garbi ikusten da gasolina botatzen duzun bakoitzean. Astea pasatzeko orain, mila pezeta gehiago gatatzen ditut.
- Gobernuak errentak jeitsi ditzala eta esku hartu dezala behingoz arazo honetan.



**Josu Azkarate (Langilea)**

- Autoaren gastuan batez ere: Lehen bi astetik behin depositoa betetzen nuen eta orain diru kantitate beraz asterako soilik iristen zait. Kredituetan ere igartzen da. Gasolinak denean eragiten du.
- Gasolinarekiko dependentziarekin apurtu beharko genuke: kotxea beharrezkoa denean soilik erabiliz, transporte publikoetan mugituz, oinez ibiliz...bizimodua, bestela antolatuz.



**Iñaki Ohianguren (ikaslea)**

- Nire aitak aitzakia horixe ipintzen dit autoa eskatzen diodanean.
- Nire soluzio bakarra transporte publikoa gehiago erabiltzea da. Baina, hau ere igo egiten dutenez, aitari paga gehiago eskatu beharko diot.

**bedardenda**  
Tfnoa.: 943 714327  
**ESKORATZA**

**BENTA-MOTZ**  
**Gaztañadui kalea**  
**Tfnoa.: 714822**  
GOIZEKO 6ETAN ZABALIK  
EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



## GAIA

## Emakumearen partehartzearen inguruan...

Irun-Hondarribiko jaietan emakumeen partehartzea dela eta ez dela sortu diren istiluak eztabaidagai bihurtu dute partehartze hori hainbat "foro"tan. Izan ere Zebarriko agintariak -ordaintzen digutenak hain zuzen, ez ahaztu aldameneko hau eta biok boligrafoaren sarizale edo mertzenarioak garela)- horixe proposatu digute dema gai: emakumeen partehartzea. Baina tira, bokale baten alde besterik ez duten arren, ez dira nahastu behar dema-gogoia eta dema-gogia.

Alde batetik eta gaur egun, Eskoriatzan eztabaida hori planteatzea demagogia hutsa da. Eta puntuak irabazteko bidea (artaburu samarra izanez gero suturazkoak, hori bai). Demagogia diot gai horrekin herri honetan ez daukagulako inolako arazorik, ez behintzat herri ihardueretan: Udaletxean, Eskoletan -nahiz publikoan, nahiz pribatuan-, jaietan, Ö Eta ez hori bakarrik, tradizioz gizonezkoen esparru izan diren elkarte gastronomikoek ere (eta kontuz esaten dugunarekin, pribatuak diren neurrian eta bazkide izatea norberaren borondatean dagoenez eskubide osoa dute hala izaten jarraitzeko eta) beren izaera hori aldatu eta hiru elkartetatik bik badituzte bazkide diren emakumeak eta hirugarrenean emakumerik ez badago ere, aipatu beharra dago ez dela estatutoetan galera izatea dagoelako, bertan sartzeko emakumeen eskaerarik egon ez delako baizik, azken bost urteotan behintzat. Honela bada, ez du merezi inolako egoerarik hobetuko ez duen eztabaidarik.

Bestalde, eta hau da eztabaidan ez sartzeko benetako arrazoia ñmerezi ala ez- argi daukat eskubideak ez direla eztabaidatzen, hor daude eta kitto. Demaseko astakeria izango litzateke bizi garen garai hauetan gizon/emakumeok eskubide berak ditugula eztabaidatzea, ze azken finean zeozer eztabaidatzen dugunean alde aurretik ontzat ematen dugu aurrekoak ere arrazoi punturen bat baduela eta gaurkoan ez da kasua.

Konklusioa: eskubide berdintasunari buruz berba gura beste, eztabaida zero.

Dudarik ere ez dago gai berriago eta istilutsuagoak badirela egun hauetan bertan Demagogo sail honi oporren bueltan heltzeko (haustura soziala, eskubide historikoak, bortxakeria, Lizarrako ituna, paterak...). Baina, auskalo zerk bultzatuta, Hondarribiako Alardean Jaizkibel konpainiaren parte hartzearen inguruan gertatutakoak arituko naiz, edo zehatzago esateko, gertatutakoak gure herri honetan eduki dezakeen islaz.

Egia da Eskoriatzan ez dela hangoa gertatzen, ez dela horren nabarmena, gure Tanborradan (zeren alardea edo erakustaldia ote gurea?) emakumeek gizakumeen parean, maila berean hartzen dutela parte, eta ikusle gehienek esanetan, gainera, ganora handiagoak. Beraz, pentsa zenezakete ez duela zentzu handiegirik Hondarribian gertatutakoaren haritik aritzeak. Ba, oso oker zabiltzateela uste dut; neuri, behintzat, eman dit zer pentsatu.

Argi dago gure herrian gizakumeoi esparru erabakior gutxi geratzen ari zaigula, gero eta gutxiago. Pentsa, bestela: komertzioaren arloa, liburutegia, kultura sustatzailea, tabernari asko eta asko, asistente soziala, komunikabideen arloa (egunkari salmenta), botikaria, sendagile berria..., denak emakumeak, zeregin estrategiko horiek guztiak emakumeen esku. Norbaitek esango du abadea geratzen zaigula, baina honen inguruan ere emakumeak dira gehiago. Gainera, zalantzan jartzekoa ere bada gaur egungo eleizaren balio estrategikoa, ez?

Geratzen zaigun bakarra udaletxea dela esango nuke; baina, hartan ere dauden gizonezkoak gehiago irudikatzen ditut trinxera batean bezala, bakeroen karabanak indioz inguratuta moduan, azken esparruari eusten eta emakumez inguratuta (bulegari gehienak, esaterako). Noiz arte iraungo duten plaza honi eusten? Noiz arte Dorleta soziedadeak? Piztu beharreko eztabaida dela argi daukat, bestela gutxi barru Hondarribiako gertatuko zaigu, baina alderantziz: gizonezkoak irten beharko gara ertzainez inguratuta. Izan ere, Hondarribia ez dago horren urrin, ez, oso gertu dago, uste baino gertuago.

## jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokitzuz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiek ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

[jojone@euskal-herria.com](mailto:jojone@euskal-herria.com)



## KONTZIENTZI ERAGOZPENA

\* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, Gazte Bulegoan emango dizugu paperak tramitatze behar duzun informazioa.

## DIRULAGUNTZAK

\* Unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuegiteko urteroko dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 31.

## IKASTAROAK

- \* Hezkidetzak ikastaro teoriko praktikoa, aukera berdintasuna lantzeko. Ikasturte guztia iraungo du, urritik ekainera.
- \* Perkusio ikastaroa: Gazteluondo ikastolan, Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenetan, 6etatik 9ak arte.
- \* Euskal dantza ikastaroa: urriaren 20tik abenduaren 15era. Ostiraletan, 7etatik 9etara, Lore Gaztearen lekalean. Matrikula 1.000 pta.
- \* Dantza karibear ikastaroa, hastapen eta sakontze mailak. Astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 7.30etatik 9etara

(hastapen maila) eta 9etatik 10.30etara (sakontze maila).

\* Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa, larunbat goizetan 10.30etatik 13.30etara, ASA Elkartearen eskutik.

\* Donostiako Hezkide Eskolak eta Urtxintza Eskolak urteroko ikastaroak antolatu dituzte: astialdirako begirale eta zuzendari, susperketa sozio-kulturala, edadedun pertsonen begirale, txarrak haurtzaroen, gaixotasun mentala, kale ekintza, hezkuntza interkulturala, ... eta beste hainbat ikastaro. Programa osoa Gazte Informazio Bulegoan duzu.

## LANA

\* Asteazkeneko jasotzen dugun asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez Gazte Informazio bulegotik.

## UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

\* Ikasturtean zehar unibertsitatera joateko eguneroko joan etorria egin behar baduzu, aukera ezberdinak dituzu.

### JAIOTZAK

- Garikoitz Barandiaran Arrieta
- Beñat Armendariz Martinez
- Amairu Iñurrieta Orbezua
- Olaia Miguelez Alday

### EZKONTZAK

- Ivan Urcelay eta Luisa Gómez Muñoz
- Andrés Fernandez Polo eta Mónica Ampudia Gonzalez
- Cayetano Rayo Sierra eta Montserrat Ignacio Horrillo



## ESKORIATZA

Udaletxea .....	943-714407
Udal Bulegoak .....	943-714532
Udalzaingoa .....	943-714407
Euskaltegia .....	943-792168
Kultur-Etxea .....	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen .....	943-714964
Museo-Eskola .....	943-715453
<b>Ze Barri? .....</b>	<b>943-715434</b>
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola .....	943-714157
Osakidetza .....	943-714452
Telesko .....	943-714917
Taxia .....	943-714059

## BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga) .....	943-721515
Renfe (Gasteiz) .....	945 232030
Pesa (Arrasate) .....	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak .....	112



ORAIN DELA




**ALDIBI AUTOAK, S.A.**



## Nissan Primera berria

*Ibilbideaz goza ezazu*



Zigarrola kalea, 1  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 20 02  
Faxa: 943 79 65 65  
e-maila: aldibi@nortekar.com




**MUGARRI**



**DEBA GARAIKO  
BANATZAILE OFIZIALA**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54



 **CITROËN XSARA BERRIA**

**Mundu seguruago batean bidaiatu dezazun**



Irteera eskeintza:

**450.000**

aurrezpena\*

Pezetako

Citroën Xsara berria segurtasun gehiagorekin bidaiatzeko gonbidapena da. Bere barruan esertzen zaren unetik nabarituko duzu ibiltzeko sortua izan den bidaiari honen lilura: 1.6i 16V 110CV motorizazio berriak, CD kartografikodun nabigapen sistema, barne ordenagailua, 6 CDrentzako ahalmena, eta 6 bozgoragailudun audio sistema, klimatizagailu automatikoa, ... Goza ezazu bere aurre airbag moldagarriek eta albokoek emango dizuten segurtasunaz, edo frenada banatzaile elektronikodun ABSaz, alboko kolpeen xurgatzaileaz eta lagunduriko direkzio aldakorraz. Eta hare errazago eduki dezazun, oso segurua izango zaizun eskeintza: 450.000 pezeta aurreztuko dituzu (\*). Argibide gehiago nahi baduzu, [www.citroen.es](http://www.citroen.es) helbide elektronikoan aurkituko duzu. Bertan zeure neurriko Xsara eraiki ahal izango duzu nahi duzun ekipamenduarekin, bere prezioa jakin, eta baita CITROËN CREDITen bidezko finantziapena kalkulatu ere. Eta orain, zure telefono mugikorren bidez

Bertsioen arabera ekipamendua. \*P.V.P. arekiko aurrezpena (B.E.Z.a eta matrikulapen zerga barne).  
Ez da gehigarria. Penintsulan eta Balearetan STOCKean dauden autoentzako baliagarria. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

E Z D A K I Z U C I T R O Ë N E K Z U G A T I K Z E R E G I N D E Z A K E E N

IKUSI NAHI BADITUZU:

**TALLERES CHAPINE SDAD. COOP. LTD**

Citroën banatzaile ofiziala

Araba etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 45 22. Arrasate



**CITROËN**